



**BALIO IRIZPIDEEN BIDEZ EGINDAKO BALORAZIO TEKNIKOA,  
GIPUZKOAKO TOKIKO ADMINISTRAZIOETAN EMAKUME ETA  
GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKAK SUSTATU ETA  
INDARTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKOARI BURUZKOA.**

**Expedientea 2019328CO600**

**2.SORTA: GIPUZKOAKO UDALEN ERREALITATE ANITZA KONTUAN  
HARTUTA, GIPUZKOAKO UDALEN ARTEKO LANGUNEAK DINAMIZATU ETA  
KUDEATZEKO ZERBITZUA.**

**1. SARRERA**

Lizitaziora proposamen teknikoak aurkezteko epearen ostean hiru enpresek aurkeztu dute haien proposamena.

- Az Participación
- ARETE ACTIVA SA
- Oreka Sarea

Onartuak izan diren proposamenak, ordea, bi izan dira, izan ere, ARETÉ-ACTIVA, SL enpresak 2 zenbakidun artxibo elektronikoan sartu du "eskaintza ekonomikoari eta formula bidez ebaluatzeko eskaintzako beste elementuei buruzko dokumentua", eta hori soilik 3 zenbakiko artxibo elektronikoan sartu beharrekoa zen, automatikoki ebaluatu beharreko irizpideei dagokiolako. Hori horrela izanik, Kontratazio Mahaiak erabaki du ARETÉ-ACTIVA, SL enpresak aurkeztu duen proposamena kanpoan uztea. Horregatik guztiagatik, onartuak izan diren proposamenak bi izan dira:

- Az Participación
- Oreka Sarea

Gauzak horrela, aipatutako bi proposamen teknikoak baloratu dira.



## **2. BALORAZIO IRIZPIDEAK**

### **Proposamen teknikoa: 49 puntu gehienez**

1. Proposamena marko kontzeptual eta arautzailearen barruan modu egokian kokatzea: baloratuko da emakume eta gizonen berdintasunerako paradigma eta politiketan kokatzea proposamen teknikoa; egungo arau, planifikazio eta marko arautzailean.

#### **9 puntu gehienez**

2. Gipuzkoako errealitatearen eta aurrekarien ezagutza: Gipuzkoako udalen errealitatea kontuan izatea, eta Gipuzkoako udalei eskaintzen zaizkien emakume eta gizonen berdintasunerako politika, programa, zerbitzu eta esperientzien ezagutza kontuan izanik diseinatzea proposamen teknikoa.

#### **5 puntu gehienez**

3. Lan proposamena baloratuko da: zein ekintza proposatzen diren, zein den proposamenaren estaldura, lan metodologia, denboren planifikazioa, eta azkenik programaren jarraipenerako sistema.

#### **20 puntu gehienez**

4. Ebaluaketaren diseinua proposamen teknikoan, programaren ebaluaketa nola egingo den zehaztu, eta aurrez planifikatzea baloratuko da.

#### **10 puntu gehienez**

5. Kontratuaren objektu den zerbitzuan udalen parte hartzea sustatzeko proposamena.

#### **5 puntu gehienez**



### 3. BALORAZIO TEKNIKOAK

<b>Az Participación</b>
Proposamen teknikoa: 49 puntu gehienez
<b>1. Proposamena marko kontzeptual eta arautzailearen barruan modu egokian kokatzea: baloratuko da emakume eta gizonen berdintasunerako paradigma eta politiketan kokatzea proposamen teknikoa; egungo arau, planifikazio eta marko arautzailean. Gehienez 9 puntu.</b>
<p>Berdintasun politiken markoan berriki sartzen ari diren kontzeptuak aipatzen ditu proposamenak. Esaterako, "interseksionalitatea" eta berdintasunaren aldeko emakume mugimenduekin elkarlana.</p> <p>Baina ezinbestean aipatu beharrekoen inguruan ez dago azalpen ezta kokapen gehiegirik. Ekintza Positiboa, Mainstreaming-a eta Emakumeen Ahalduntzeari buruzko berdintasun politiketarako estrategia nagusien kokapena marko internazionallean eta gipuzkoarrean ez dute sartu.</p> <p>Egoki kokatzen dute bertako instituzio publikoen marko arautzaileak. Maila internazionalerako ez dira aipatzen. Marko programatikoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegokoa aipatu arren, Foru Aldundikoan soilik II. Berdintasunerako plana aipatzen dute; Aurre eta Kontziliazio planaren inguruko aipamenik gabe.</p>
<b>Guztira jasotako puntuak 5 puntu</b>
<b>2. Gipuzkoako errealitatearen eta aurrekarien ezagutza: Gipuzkoako udalen errealitatea kontuan izatea, eta Gipuzkoako udalei eskaintzen zaizkien emakume eta gizonen berdintasunerako politika, programa, zerbitzu eta esperientzien ezagutza kontuan izanik diseinatzea proposamen teknikoa. Gehienez 5 puntu.</b>
<p>Egoki kokatzen dituzte zein udal diren zerbitzuaren hartzaileak, zer den egitura egonkorra izatea. Emakumeen Etxeen inguruko informazioa ere txertatzen dute berdintasunerako udal ekipamendu baliagarri bezala. Udalerrietako arduradun politikoen perfil ezberdinen inguruko hausnarketa ere egiten da.</p> <p>Ez da apenas aipamenik egiten Gipuzkoako udalerrien arteko berdintasunerako sareen inguruan. Ez Gipuzkoako berdintasunerako teknikarien langunearen inguruan, jada urteak martxan daramatzan sarea, ez eta Aurre planean aurreikusten diren beste bi sareen inguruan; Gazteria eta Berdintasun teknikarien sarea eta gizarte langile eta berdintasun teknikarien artekoa ere.</p>
<b>Guztira jasotako puntuak 3 puntu</b>



**3. Lan proposamena baloratuko da: zein ekintza proposatzen diren, zein den proposamenaren estaldura, lan metodologia, denboren planifikazioa, eta azkenik programaren jarraipenerako sistema. Gehienez 20 puntu.**

Egoki kokatzen da proposamena eskaerara. Are gehiago, arduradun politiko-teknikoen ordezkariekin udalen beharren/errealitateen arabera lantaldeak egitea ere proposatzen da.

Adituen presentzia aurreikusten da talde guztietan. Gazteria eta Gizarte langileekin egin nahi den lantaldeak, ordea, ez dio guztiz zerbitzuaz espero denari erantzuten. Adibidez sei hilean behin bi ordu eta erdiko saio izatea soilik gizarte langileekin elkartzeko proposamena oso eskaintza baxua dirudi lan prozesu bat abian jartzeko.

Elkarlana plataforma aipatzen da proposamenean dokumentuak eskegitzeko tresna gisa, baina ez da espazio birtualerako proposamenik egiten, berau sustatu edo bestelako erabilgarritasunik emateko.

Elkarrizketari, elkarren errekonozimenduari garrantzi handia ematen zaio eta positiboki baloratzen da, jakinik taldeen aniztasuna oso handia izango dela. Azkenik, Metodologiaren azalpenean, metodologiak eta printzipio gidariak nahasten ditu proposamenak.

Udal guztiekin harreman iraunkorra izango dela aipatzen da, baina ez zertarako. Azken finean, langune bakoitzaren beharrak ezberdinak izango baitira. Hala ere, malgutasunari ematen dioten garrantzia positiboki baloratzen da.

Kronogramak egokiak dira. Langune bakoitzeko kronograma bat. Faltan hartzen da, ordea, lau prozesuak bateratzen dituen kronograma bat. Izan ere, agente batzuk langune bat baino gehiagotan egongo baitira.

GFAko Berdintasun Organoarekin espero den koordinazioa etengabea dela dio, baina zehaztasun falta sumatzen da. Zeinek parte hartuko duten koordinazioan, zein maiztasunekin. Adibidez, ez dago kronograman jasota programaren jarraipenerako egiturarik.

**Guztira jasotako puntuak 11 puntu**



**4. Ebaluaketaren diseinua proposamen teknikoan, programaren ebaluaketa nola egingo den zehaztu, eta aurrez planifikatzea baloratuko da. Gehienez 10 puntu.**

Gainetik aipatzen du ebaluazioaren garrantzia baina marko teorikorik aipatu gabe.

Ebaluatuko diren alderdiak aipatzen dituzte, eta ebaluaketetarako gune bakoitzeko fitxa bat proposatzen dute. Txostenen maiztasuna argi azaltzen da: langune bakoitzeko urteko ebaluazio txostena.

Adierazleak aipatzen dira, nahiz hauen neurgarritasuna ez den oso erraza. Adibidez "lortutako aldaketen jasangarritasun maila".

Kronograman ebaluazio etengabea eta iraunkorra proposatzen dute.

**Guztira jasotako puntuak 7 puntu**

**5. Kontratuaren objektu den zerbitzuan udalen parte hartzea sustatzeko proposamena. Gehienez 5 puntu.**

Proposamen bat egiten da baina oso orokorra. Bi momentuz hitz egiten dute, lehen kontaktuak, dei telefonikoen bidez eta gero bileran dinamizazioa dinamiko izateaz. Ez dago partaidetza sustatzeko motibazio edo iniziatibaren inguruko proposamenik.

**Guztira jasotako puntuak 2.5 puntu**

<b>Az Participación</b>					
<b>Atal guztien batura</b>					<b>Puntuazio totala</b>
<b>1 atala</b>	<b>2 atala</b>	<b>3 atala</b>	<b>4 atala</b>	<b>5 atala</b>	
<b>5</b>	<b>3</b>	<b>11</b>	<b>7</b>	<b>2.5</b>	<b>28.5 puntu</b>



## OREKA SAREA

Proposamen teknikoak: 49 puntu gehienez

**1. Proposamena marko kontzeptual eta arautzailearen barruan modu egokian kokatzea: baloratuko da emakume eta gizonen berdintasunerako paradigma eta politikan kokatzea proposamen teknikoak; egungo arau, planifikazio eta marko arautzailean. Gehienez 9 puntu.**

Berdintasun politiken ibilbide historikoa egiten du; Estrategia duala, tratu berdintasuna, aukera berdintasuna, ekintza positiboa, mainstreaming-a. Nazio Batuen Erakundearen adierazpenetatik, bertako marko arautzailearaino.

Marko programatikoari dagokionez, lehenik, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko marko programatikoaren ibilbide historikoa egiten du, bilakaera azalduz.

Amaitzeko, gaur egungo marko programatikoak azaltzen du, bai Euskal Autonomia Erkidego mailakoa, nahiz Gipuzkoakoa ere, hiru planifikazioak aipatuz: II. Plana, Aurre plana eta Kontziliario erantzunkidearen plana.

**Guztira jasotako puntuak 9 puntu**

**2. Gipuzkoako errealitatearen eta aurrekariaren ezagutza: Gipuzkoako udalen errealitatea kontuan izatea, eta Gipuzkoako udalei eskaintzen zaizkien emakume eta gizonen berdintasunerako politika, programa, zerbitzu eta esperientzien ezagutza kontuan izanik diseinatzea proposamen teknikoak. Gehienez 5 puntu.**

Gipuzkoako udalen sailkapena egiten du. Biztanleen arabera, bai eta udal bakoitzak berdintasun politikekin izan duen harremanaren arabera ere.

Gipuzkoako Foru Aldunditik tokiko berdintasun politikak sustatzeko tresna guztiak izendatu ditu: dirulaguntza, hitzarmenak, programak. Horrez gain, aurrekariak dituen berdintasun teknikarien langunearen ibilbidea deskribatu eta hausnartzen du.

Azkenik, gainontzeko languneak kokatzen ditu Berdintasunerako Foru programetan.

**Guztira jasotako puntuak 5 puntu**



**3. Lan proposamena baloratuko da: zein ekintza proposatzen diren, zein den proposamenaren estaldura, lan metodologia, denboren planifikazioa, eta azkenik programaren jarraipenerako sistema. Gehienez 20 puntu.**

Marko teorikoa oso zabal azaldua dago. Esaterako, aldagetak gauzatzeko, *ikasketa-hausnarketa-ekintza* metodologiaz hitz egiten du.

Langune bakoitzarentzako lan-marko bat proposatzen du, Berdintasun Organoaren enkargua ondo kokatuz. Era berean lau languneak estrategia bateratu batean kokatzen ditu, lurralde mailakako emakume eta gizonen berdintasunerako estrategian kokatuz.

Espazio bakoitzean landu beharreko edukien inguruko proposamena egiten du, Foru Planifikazioan aipatzen diren erronken arabera. Adituen parte hartzea aurreikusten du, saio kopurua mugatu gabe. Langune bakoitzetik espero daitezkeen emaitza posibleak aurreikusten ditu.

Irudi grafikoekin sintetizatzen ditu proposamenak. Horrek, plegu teknikoetan jasotzen zen betebeharrari erantzuten dio (4. Funtzio orokorreko 1.3 eginkizuna).

Langune bakoitzeko partaideen perfilaz hitz egiten da proposamenean. Estalduraren inguruko zehaztasun maila handia dago. Saio kopurua zehazten da, baina ez hauen iraupena.

Elkarlana espazio birtualetako proposamen propio bat egiten du, dinamizazioaz eta erabilgarritasunaz. Tresna honen ebaluaketa propioa proposatzen du.

Planifikazioan inkoherentzia bat dago testuan idatzitakoaren eta kronogramaren artean. Hala ere, proposamena bi modutan egokia dela baloratzen da. Kudeaketa ereduaz proposamen zehatza egiten du, bai eta informazio eta esperientzien sistematizazioaz ere.

Koordinazio eta programaren kudeaketarako egiturak aipatzen dira, baita hauekin elkartzeko bilera kopurua eta harreman sistema. Irekia uzten du beste aholkularitzekin (gainontzeko sortakoak) koordinatzeko aukera.

**Guztira jasotako puntuak 19 puntu**



**4. Ebaluaketaren diseinua proposamen teknikoan, programaren ebaluaketa nola egingo den zehaztu, eta aurrez planifikatzea baloratuko da. Gehienez 10 puntu.**

Garrantzia ematen zaio ebaluazioari marko teorikoekin aberastuz. Prozesu jarraia bezala kokatzen da hobekuntzarako metodologia gisa.

Definituta daude zein tresna eta metodologia erabiliko diren ebaluaziorako.

Adierazleak adierazi ez arren, hauen hautua irizpide tekniko politikoei utziko zaiolako egiten du baina era berean adierazle egokiak zeintzuk diren kokatzen laguntzen duen ekarpen teorikoa egiten du.

Planifikatua dago ebaluaketa, bai kronograman, bai eta taula bidez espazio kolektiboetan, prestakuntzan, planifikazioan, ekintzen antolaketan, interbentzioetan eta aholkularizetan.

**Guztira jasotako puntuak 10 puntu**

**5. Kontratuaren objektu den zerbitzuan udalen parte hartzea sustatzeko proposamena. Gehienez 5 puntu.**

Parte hartu ahal izateko alde zureko ezinbesteko baldintzen hausnarketa egiten du, proposamen proaktiboa eginaz. Informazioari, kontu emateari, motibazioari garrantzia ematen zaio, zerbitzuaren parte hartzeaz gain.

**Guztira jasotako puntuak 5 puntu**

OREKA SAREA SA					
Atal guztien batura					Puntuazio totala
1 atala	2 atala	3 atala	4 atala	5 atala	
9	5	19	10	5	48 puntu





#### 4. PROPOSAMENEN ARTEKO ALDERAKETAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Gipuzkoako udalen errealitate anitza kontuan hartuta, Gipuzkoako udalen arteko languneak dinamizatu eta kudeatzeko zerbitzua ematea helburu zuen bigarren sortan bi baleko proposamen jaso dira, ARETE ACTIVA kanpoan geratu baita.

Bi proposamenak alderatuta, zerbitzuaren estalduraren aldetik, OREKAren proposamenak eskaintza zabalagoa egiten du. Saio kopuru gehiago eskaintzen baititu eta ez baititu adituen saioetan mugarik jartzen.

##### 2 URTERAKO SAIO KOPURUA

	1.LAGUNEA Lurraldeko espazio politiko- teknikoa	2.LANGUNEA Gipuzkoako berdintasun teknikarien langunea	3.LANGUNEA Gazteria eta Berdintasun	4.LANGUNEA Gizarte politika eta Berdintasuna
<b>AZ Participación</b>	6	6	4	4
<b>OREKA SAREA</b>	8 <sup>1</sup>	10	10	8

Bestetik, lau languneen helburu eta eginbeharrak, hobeto kokatzen ditu OREKAK, atzera begira languneetan aurrez landu dena erreparasatuz, bai eta Foru Aldundiaren marko programatikoen helburuetarako langune hauek tresna bezala kokatuz (Aurre, Kontziliazio planetan).

Gainera, metodologiari buruzko zehaztasunetan, eta parte hartzeari buruzko proposamenean ere, OREKAK egiten duen proposamenak languneko etorkizuneko partaideen motibazio, informazio eta partaidetza lantzeko marko teoriko eta ekintzak proposatzen ditu modu zabalagoan AZ Partecipacionen eskaintzak baino.

Azkenik, ebaluaketari dagokionez, AZ Partecipacionen eskaintzak lau langunean ebaluatzerantz mugatzen den bitartean, OREKAK, bestelako tresnak ebaluatzea ere proposatzen du, ELKARLANA plataforma bezalakoak.

Horregatik guztiagatik, bi proposamenak aztertu ostean, OREKA enpresak proposamen tekniko hobea egin duela adierazten dut.

Donostia, 2020ko otsailaren 12an.

Joxepa Bornaetxea Estela  
Berdintasun Teknikaria

<sup>1</sup> Idatziz 4 saio urtero jarri harren, kronograman 4 saio 2 urtetan eskaintzen dute.



## BALORAZIO TEKNIKOAREN PROPOSAMENA

Gehienez 49 puntu

Balorazio irizpideak		Az Participación	Oreka Sarea
<i>Marko kontzeptuala eta arautzailea</i> <b>Gehienez 9 puntu</b>	Proposamena marko kontzeptual eta arautzailearen barruan modu egokian kokatzea: baloratuko da emakume eta gizonen berdintasunerako paradigma eta politiketan kokatzea proposamen teknikoak; egungo arau, planifikazio eta marko arautzailean.	5	9
<i>Gipuzkoako errealitatearen eta aurrekarien ezagutza</i> <b>Gehienez 5 puntu</b>	Gipuzkoako errealitatearen eta aurrekarien ezagutza: Gipuzkoako udalen errealitatea kontuan izatea, eta Gipuzkoako udalei eskaintzen zaizkien emakume eta gizonen berdintasunerako politika, programa, zerbitzu eta esperientzien ezagutza kontuan izanik diseinatzea proposamen teknikoak.	3	5
<i>Lan proposamena</i> <b>Gehienez 20 puntu</b>	Lan proposamena baloratuko da: zein ekintza proposatzen diren, zein den proposamenaren estaldura, lan metodologia, denboren planifikazioa, eta azkenik programaren jarraipenerako sistema.	11	19
<i>Evaluaketaren diseinua proposamen teknikoan</i> <b>Gehienez 10 puntu</b>	Evaluaketaren diseinua proposamen teknikoan, programaren ebaluaketa nola egingo den zehaztu, eta aurrez planifikatzea baloratuko da.	7	10
<i>Udalen parte hartzea sustatzeko proposamena</i> <b>Gehienez 5 puntu</b>	Kontratuaren objektu den zerbitzuan udalen parte hartzea sustatzeko proposamena.	2.5	5
<b>GUZTIRA (49 punturen gainean)</b>		<b>28.5 puntu</b>	<b>48 puntu</b>